

Nafarroako Esaera Zaharrak. Oskotz.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Oskotz.

- 924 *Ardi sorokoiek lagunak billatzen.*
Gizon ardozaleak ere bai.
- 925 *Arto egin berri, gain zuri! -Zer zaitzu zuri?*
- 928 *A ze mutille naizen ni! naikoa jan ta pillotari!*
Alfer ederra.
- 932 *Bakotxek bere santuari otoitz.*
Bakotxek bere alde egiten du.
- 952 *Nolako txoria, alako kabia.*
Nolako jendea, alako etxea.
- 1001 *Atzeko aldetik ere begie bear giñuke, atzetik zer datorren ikusteko.*
- 1002 *Auntzentzat ez da esirik: gaiztoentzat ez da kontzientzirik.*
- 1003 *Bere neurriko zapatarik gabe ez da iñor.*
- 1004 *Beretzat gauza ez denak, ezin moldatu besteak.*
Bere etxea ta bere burua zuzentzen ez dakienari, ez zaio besteren kargurik eman bear.
- 1005 *Bildurrik gogorrena, giza-bildurra.*
- 1006 *Bizia luzia, ta laburrena.*
Neketan bizi denarentzat bizi luze.
- 1007 *Bizi dena, nondik edo andik agertzen da.*
- 1008 *Buruz arrie jo, edo arriz burue, berdin da.*
- 1009 *Eder-itsusirik ez du(e)n jendia, parragarri.*
Ederra ta itsusia berezten ez dakienak, kalterik artzen ez badu ere, bai parragarri gelditzen.
- 1010 *Egin ez du(e)nik ez du iñork jaso nai.*
- 1011 *Egunek egune urbil du.*

- 1012 *Eguzki txuri, atze beltza.*
Atzetik ekaitza.
- 1013 *Eltze bakoitzek bere estalkie bear.*
Mutil bakoitzak neskatoa (sic).
- 1014 *Elurrak, gañek (mendi gañak) (t)oputzen ditu.*
- 1015 *Ematen du(e)n ure beti ona.*
Emallea beti ona.
- 1016 *Erregu (anega) bat gari elkarrekin jan arte, senar-emazteak ez dute elkar ezagutzen.*
- 1017 *Errietan eliza baño etxe geiago dire.*
Etxetik botatzen den maixtarrari esana.
- 1018 *Eskallera gora ta bera erabiltzen ditu Jainkoak.*
- 1019 *Eskalleren bat irixten ez zaion gaiñik ez da.*
Goienera igo ta ere, etsaia iritxi dakioke, artarako eskallera izango du, nai badu.
- 1020 *Eskopeta utsek bi gizon ikaritzen ditu, beteak bat.*
- 1021 *Espaleko gosea, makurrena.*
Espaletan lotua dagon gariak, ultzirako prest, ogi-gosea piztuzen du.
- 1022 *Esperantza txarra baño, gabea obe.*
Uste utsa, amets utsa; auzietan kalte.
- 1023 *Etxea beti eske dago.*
Bera zutik idukitzeko eta bertakoak bizitzeko.
- 1024 *Etxeak bere aldiak: batean egin, bestean ondatu.*
- 1025 *Etxe guzietan labatzak beltzak.*
Guzietan izaten aldi txarrak, beltzak.
- 1026 *Etxeko andrearen burutik dabillen etxea, auntzak jaten duen baratzea.*
- 1027 *Ez den tokitik deus ateratzen ez.*
- 1028 *Ez du(e)na, arria baño gogorragoa da.*
Arriak deus ez ematen; ez duenak ere ez.

- 1029 *Ez du(e)nak duenari zer ematen dio? -Lotsa.*
- 1030 *Ez duguna bagiñu, txerri bat il bagiñu, urdaia jain (jango) giñun.*
- 1031 *Ez du(e)nak ez du deus emaan.*
Arri gogorak bezela.
- 1032 *Ez-etik bai-era asko dago.*
Deus ez denean zerbait duenak asko duela.
- 1033 *Ezin ditekena, ditekena da.*
Elkar lagunduz edo.
- 1034 *Ezur nausiko miñe du alperrak.*
Lanerako gogorik-eza, orra aren ezur-miña.
- 1035 *Gabea otza da.*
Ez baitu zertaz berotu.
- 1036 *Gabez ataria jotzen bada, inguruko leioak erne.*
- 1037 *Gainberak aldapa berekin du.*
Gainbera ta aldapa gora.
- 1038 *Gaizki esaten du(e)nak, esan ainbat zor.*
- 1039 *Gaizki pentsatzen du(e)nak, ongi ezin egin.*
Bere buruari ta beste kalte.
- 1040 *Galdu den tokian asi bear da kapusai bille.*
- 1041 *Gaurko ogia, biarko gosea.*
Gaurkotik zerbait gorde biarko.
- 1042 *Gauza ona baño, feri ona obe.*
Feri onean saltzen den azienda edo gauza, feri txarrean ezin saldu, edo merkeago ta galduz saldu bearko.
- 1043 *Gaztañe lan, gaztañe jan.*
- 1044 *Gaztentzat da plaza.*
- 1045 *Gerrak aittu (aditu, entzun), baño ikusi ez.*
- 1046 *Gizona etxean euki nai baduzu, jarri iozu jauna bezela.* Arrera ona egiozu, jaun bati dagokion bezelakoa.

- 1047 *Gizon ustelari burutik bera kaka egiten diote guziek.*
Txoriak txori-maloari edo izugarriari bezala.
- 1048 *Goiena baño gorago deus ez da.*
Irabazi ta irabazi joan arren, goiena jo ezkerro deus geiago ez da.
- 1049 *Goldaratz: arto gutxi ta ogia latz.*
Goldaratz, Imoz-ko erria da.
- 1050 *Gu il ta ere, zakuak errotara joango ttuk (dituk).*
- 1051 *Guzietatik naikoa iñon ez.*
Naikoa ta gaiñezkoa zeruan bakarrik.
- 1052 *Guziok bizirik jaiok: guziok geren eskubideak.*
- 1053 *Ibilli bear du(e)nak, egotea kalte.*
- 1054 *Idiak, adarra leorra, ta oazalaren sabela.*
Lanik ez badu egiten ere, asko jaten.
- 1055 *Idie adarretik galtzen da: eskribaue plumetik, eta gizona firmetik.*
- 1056 *Ikasirik ez da iñor jaiotzen.*
- 1057 *Illak eta biziak ematen pena berari.*
- 1058 *Irabazirik galdu.*
Musean asko irabazi, eta gero ordago batekin dena galdu.
- 1059 *Irabaziak anak arin.*
Geiago irabazteko gogo sortzen du.
- 1060 *Itzalik gabe iñor ez da.*
- 1061 *Izanak ez du gaitzik egiten; eza da beltza.*
- 1062 *"Izan dire", izen txarra.*
Orain ez direlako. Oihenart-ek: "Izana, izen gaitza" (282).
- 1063 *Jaio-ta il arte, ez esan zein iturritan ur edain (edango) den.*
- 1064 *Jan aurreko janak, ez du etxea galtzen.*
- 1065 *Jende askok, asko bear.*

- 1066 *Jenioak ez dire erosten.*
Baiñan bai bakoitzak berea zuzentzen, bere burua garaitzera saiatuz.
- 1067 *Jornal pagatua, adiskide zar.*
Pagatu duena geroz adiskide gelditzen.
- 1068 *Jokuan garbiena asi dena, gelditzen da garbiena.*
- 1069 *Soñuak poztutzen ez du(e)na, ez da parte onekoa.*
- 1070 *Su ona bere aita ta ama.*
Familia baturik idukitzeko, aita ta amaz gaiñera bear dela sua; gurasoekin batean, suaren ingurura biltzen da familia osoa.
- 1071 *Sua ere txingien gañean lenago egiten da.*
- 1072 *Surik ez den tokian, ekerik ez da ateratzen.*
Oihenart-ek: "Su gaberik ez da kerik" (415).
- 1073 *Tellatupe asko du(e)nak, buruauste asko.*
- 1074 *Tipule tristure.*
Txikitzean negarra sortu dezakelako ote?
- 1075 *Tripek ez du jairik.*
Jai ta aste berdin eskatzen.
- 1076 *Txanpon gaiztoa, etxera biur.*
- 1077 *Txerri gosea ta jende gosea, goiztar.*
- 1078 *Tximinipean ezagutzen dire gizonak.*
- 1079 *Udan jostari ta kantari, ta neguan dantzari.*
Gogora ekarri txinurri ta txitxarraren (tirrittaren) ipuia.
- 1080 *Ukal-ondoa urbil dago, ta ezin eman musurik.*
Olakoxekoak familiako gorrotoak.
- 1081 *Urak ernaltzen du lurra.*
Lurrari fruitua eman-arazten, urik gabe ezin eman.
- 1082 *Ur askok indar asko, baiña beti gainbera.*
- 1083 *Zaietan irin, eta iriñetan zai.*
Edozein lanetan asi ta, kontra joaten dena.

- 1084 *Zaku utsa ez da zutik egoten.*
Lan egitekoz jan egin bear.
- 1085 *Zaldirik seguroena nork bere anakak.*
- 1086 *Zapi ta zapi, katuaren tema.*
- 1087 *Zarrantz-en amabik: mundu guzian emanik.*
Zarrantz, Imozko erri txiki txikia.
- 1088 *Zenbat eta ipurdie gorago, ordu(a)n eta burue berago.*
- 1089 *Zer da dolorea? zaku zar bat artu ta ezin billatuz laborea.*
- 1090 *Zer dio artzaleak? aspertu dela emanzalea.*
- 1091 *Zer merezi du ongilleak? eskergabekeria.*
Ez da ori ongilleak merezi duena, baiña ori ematen zaio maiz aski: esker onaren orde ezker txarra.
- 1092 *Zeruan aur aingeru bat obe, lurrean zazpi apez baño.*
Ori esaten zaie aur bat il zaienei.
- 1093 *Zitu gutxi du(e)n adarra, tente.*
Ez baitu fruituaren pisurik makur-arazteko.
- 1094 *Zor ona baño artzeko txarra obe.*
- 1095 *Zorria baño pobreago, ta zorria baño lotsagabeago.*
- 1096 *Zorri birpiztuak ozka miñe.*
Emen ere ongi dator Oihenart-ena: "Jaunetan zein da latzena? ezdeuseti jauntzera heldu dena" (259). Beartsua izan, eta aberastu egin dena.
- 1097 *Abenduko eguna argitu orduko illuna.*
- 1098 *Abendu txuri, ez ardi ta ez axuri.*
- 1099 *Agerian dagonak ispillu bearrik ez.*
Agerian dagoenak ez du itz bat geiago bear.
- 1100 *Agintzale ona, egintzale txarra.*
Asko agindu (itzeman) bai, baiña ez bete.
- 1101 *Agoa (aoa) dabillen arte, sabela poz.*

- 1102 *Agokoa (aokoa) geroko.*
Jatera ematen zaion aziendak, gero esnea ta ematen.
- 1103 *Aidearen aide, pariente.*
- 1104 *Ama lapurra, beste andre batekin mokoka ari zelarik, alabak esan zion:*
"Ama, esaiozu lapurra! esaiozu lapurra! bestela berak aurrea artuko dizu".
Oihenart-ek berdintsu: "Ama, aitzint zazkio p... deitzera". Nolako ama, alako alaba!
- 1105 *Al denean al dena, eta al dittekean bezala.*
Ola egin bear beti.
- 1106 *Alkatea, bestekin da alkate.*
Bera bakarrik deus ez.
- 1107 *Alperra beti pentsatzen.*
Gogoeta asko ta gutxi egin.
- 1108 *Ama Birjiña martxoko, ardi antzue larrean aseko.*
- 1109 *Ama Birjiña urriko, lioa iru orriko.*
- 1110 *Ama aurrekin eskuak loturik.*
Amak aurrekin naiko lan.
- 1111 *Amak ume guziak beretzat ezagutzen ditu.*
Oiek baitire bere ondasuna.
- 1112 *Apaltasunak guziak bereganatzen ditu.*
- 1113 *Apirilleko egunak iru aro.*
Maiz eta aise aldatzen.
- 1114 *Arantza izango dena, gaztetan zorrotz.*
Gaztetan ezagungo zer izango den gero.
- 1115 *Ardi zarraren umea, egar-gure.*
Amak esne gutxi, ta umea beti errape billa.
- 1116 *Ardoak ez du indarririk; edan ta bizkortzen ditu baztarrak.*
- 1117 *Aritze ta ezpala ari batekoak.*
Guraso gogorregandik ume gogorrak.

- 1118 *Arrausi luzea, lo(g)ale edo gosea.*
Ola esaten da erderaz ere. Oihenart-ek: "Aharrausi usua, gose edo lo-
mezua" (11).
- 1119 *Arrazoiari berea eman bear zaio.*
- 1120 *Asiak egiña dirudi, eta egiñak urre gorria.*
- 1121 *Asko den eguna, deus ez izateko bezpera.*
Geiegizko gastuak, gero zorrak.
- 1122 *Astea bear dute gauzak, asi gabe buru ematerik ez.*
- 1123 *Astoaren jangarrie, berekigabekerie.*
Orrek beartzen jatera.
- 1124 *Atsaldean jeki zen neskameak esan omen zuen: Gaur eguzkia okerreko
aldetik atera da.*
- 1125 *Aundiak aundiago, ta txikiak akabo!*
Aundiak txikia zapaltzen.
- 1126 *Aur mukizu ta txaldarrari ez egin irririk.*
Nork daki zer izan liteken!
- 1127 *Aurre, eri luzea.*
Aurrak lanik asko ematen amari, luzaro eri dagonak bezela.
- 1128 *Aurrek kargarik ez dute jasotzen, baño kontuan bai.*
- 1129 *Azariak ere bera bezalakoak izaten ditte umeak.*
- 1130 *Azkena gelditzen denak paga txela (ditzala) gastuak.*
- 1131 *Azkenik ez duen plazorik ez da.*
Erderaz ere: No hay plazo que no se cumpla.
- 1132 *Azpiroz-ko txerriek janak ixildu zitu(e)n. Txerrikumeak zeuden kurruxke:
"Amabik eta barurik, amabik eta barurik! nok ikusi du olakorik?" Urtamak
beste aldetik esan omen zien: "Lenago nik, lenago nik".*
- 1133 *Baratxurie, urte guziko janarie.*
- 1134 *Bat emen da; beste bat banu!*
Gauza galduak arkitzean.

- 1135 *Baztarre(r)a allaatu, ta itto.*
Arrisku aunditik atera, ta seguruan galdu.
- 1136 *Bear, eta izan; orrek du eskerra.*
- 1137 *Beingoa, barkatzekoa da.*
Bein egiten den utsa, barkatzekoa.
- 1138 *Beorreatan eta erlean ez jarri interesa osoa.*
Biek bat-batean galtzen baitire.
- 1139 *Beren bidez etorri, ta beren eskutan joaten.*
Langille ta nekazarien irabaziak berdin.
- 1140 *Berez ez badabille, alperrik da makille.*
- 1141 *Bestek ekarri ta bestek eraman.*
Mutil edo morroi ta langillearekin irabazten dena.
- 1142 *Bildurrek, oñetan egalak jartzen ditu.*
- 1143 *Bizi naiean, bizia galdu.*
- 1144 *Burua galtzen duenak, anak non dabilten ez daki.*
- 1145 *Dabilenak, zeozer ekartzen du etxera.*
- 1146 *Danbolin pagatuak, soñu gutxi.*
- 1147 *Daukanak artu.*
Musean esaten da ori.
- 1148 *Denborak, guziak ekartzen ditu.*
- 1149 *Den tokitik zabaltzen da.*
Bestentzat ere izango da.
- 1150 *"Deus ez bada, beste zer bait" esan omen zuen eskaleak.*
Noski "deus ez da" esan zioten etxean.
- 1151 *Diruak egiten du dirua.*
Gastuetarako bear dena geitzeko.
- 1152 *Dirurik ez du(e)n gizonak zapoa dirudi.*
Guziak ostikoka erabiltzen.

- 1153 *Du(e)nari eman, ez du(e)nari kendu.*
Arrazoia duenari eman egin bear zaio.
- 1154 *Besteen ordeztz iñor iltzen ez.*
Eriotzazko esaera. Goiz edo berandu guziok il bear, ez dago ordeztzkorik.
- 1155 *Denbora joan egiten da, eta gu bageramazki.*
Eriotzazko esaera. Beti bidean gabiltza.
- 1156 *Denborak urrea balio du.*
Eriotzazko esaera. Ola esaten da erderaz ere. Ordu bakar batek urre guziak baño geiago balio du, zerua irabazteko ainbat.
- 1157 *Erioak begiak argi.*
Eriotzazko esaera. Ari etzaio iñor izkutatzen.
- 1158 *Eriotza lege berdiñe: gizona etorri bezala joan.*
Eriotzazko esaera. "Jaiok iltzea zor".
- 1159 *Ezin esan gure ordua non dagon.*
Eriotzazko esaera. Azken ordua noiz ta non izango den ez dakigu.
- 1160 *Illari anak otzak.*
Eriotzazko esaera.
- 1161 *Iltzeko, gazteak ordu jakiñik ez; eta zarrak iges egiterik ez.*
Eriotzazko esaera.
- 1162 *Loak ekarri ta loak eraman.*
Eriotzazko esaera. Lotan etorri ta lotan joan? bai askotan.
- 1163 *Zartara guziok iritxi nai, baño zartu iñork ez.*
Eriotzazko esaera. Luzaro bizi nai, baño zartu gabe, beti gazte.
- 1164 *Zartatik iñor ez pasatzen.*
Eriotzazko esaera. Aurtzarotik adiñez-adin zartzarora igarotzen gera; baño zartzarotik eriotzera, eztago bitarteko adiñik.
- 1165 *Badire gaitzek, miñik ez ta onik ez.*
Gaitzazko esaera. Berez etorri ta berez joan egiten direnak.
- 1166 *Baratzurie, zazpi gaitzen kontrakoa.*
Gaitzazko esaera. Alako indarra du baratzuriak!
- 1167 *Begiak asko ikusi nai du, ta gutxi sufritu.*
Gaitzazko esaera.

- 1168 *Besteren nekeak aise eramaten dire.*
Gaitzazko esaera. Besten nekeaz axola gutxi izaten.
- 1169 *Eri dagonak, orduak luzeak.*
Gaitzazko esaera. Bakarrik badago (ta gauez) luzeago.
- 1170 *Eri luzea, bizi dela atzendurik (azturik).*
Gaitzazko esaera.
- 1171 *Eri luzea, aspergarrie.*
Gaitzazko esaera. Ari laguntzea guziz on, bai arentzat bai gerentzat.
- 1172 *Ez dire gaitz guziek gaitzera artu bear.*
Gaitzazko esaera. Erderaz esaten da: No hay mal que por bien no venga.
- 1173 *Ez egin besteri, zuretzat nai ez duzunik.*
Gaitzazko esaera.
- 1174 *Gaitze, lapur ixille.*
Gaitzazko esaera. Gutxien uste denean etortzen, lapurra bezala.
- 1175 *Gaitzek aiseago etortzen dire, joaten diren baño.*
Gaitzazko esaera.
- 1176 *Gaitzentzat ez da zarririk, ez gazterik, ez bizkorrik.*
Gaitzazko esaera. Denak berdin arrapatzen.
- 1177 *Gaitzetan pixketik etortzen da puske.*
Gaitzazko esaera. Asieratik eragotzi bear, txartzen utzi gabe.
- 1178 *Gaitz onik ez da.*
Gaitzazko esaera. Gorputzarentzat ez, baña bai arimarentzat; kristau asko gaitzari esker ondu dire ta zerua irabazi dute.
- 1179 *Gaizki dagona añuriz, ta ongi dagonak aditu nai ez.*
Gaitzazko esaera. Maitasun murrizta!
- 1180 *Gorputzak alde alperrik ez du.*
Gaitzazko esaera. Alde guziak beretzat ezagutzen ditu; guziek badute zeñek bere egitekoa, ez daude alperrik.
- 1181 *Gorputzak ez du baztarrik.*
Gaitzazko esaera.

- 1182 *Indarrak pixkeka etorri, ta pixke-pixke joaten dire.*
Gaitzazko esaera.
- 1183 *Miñek tokiz aldatzea on, besteren etxera obe.*
Gaitzazko esaera. Miñak tokiz aldatzea on duela, agerian dago: baño besteren etxera zertako?
- 1184 *Min txikiagoa, aundiagoak atzentzen du (aztuarazten du).*
Gaitzazko esaera. Oihenart-ek ere ola: "Gaitza, gaitzagoak derahatza" (174).
- 1185 *Min txikirik ez da.*
Gaitzazko esaera. Alaz ere, emengo miñik aundienak txikiak dire beste mundukoen aldean.
- 1186 *Nai du(e)nak geiago egiten du, al duenak baño.*
Gaitzazko esaera.
- 1187 *Naiz deus gabe, Jainkoak digula osasune.*
Gaitzazko esaera.
- 1188 *Osasuna ez dugu erosie; Jainkoak eman ta Jainkoak kendu.*
Gaitzazko esaera. Askotan ez al dugu galtzen geren erruz?
- 1189 *Osasune, galdu arte, ez dugu deusetan artzen.*
Gaitzazko esaera.
- 1190 *Osasune, munduko ondasune.*
Gaitzazko esaera.
- 1191 *Otza, frío; gosea malo: ezurretatik erortzen nago.*
Gaitzazko esaera.
- 1192 *Ardi marrakalariak bokadua galtzen du.*
Itzetazko esaera. Erderaz ere ola.
- 1193 *Ardoak esan zu(e)n: Naizen tokian jolasik gabe ez da izango.*
Itzetazko esaera. Jolasa = izketa.
- 1194 *Badakizu zer esate(r)a zoazin; zer adituko duzun, ez.*
Itzetazko esaera.
- 1195 *Baietz! Ikusi ta sinets!*
Itzetazko esaera.
- 1196 *Barnak ez dire ikusten, esanaz azaltzen.*
Itzetazko esaera.

- 1197 *Berak pote, besteri uzten ez.*
Itzetazko esaera. Berak nai duen guzia esan ta egin, nai duen bezala ibilli, eta besteri deus ez utzi, zuzen ibilarazi; beretzat lasa ta erraza, bestentzat estu ta zorrotza.
- 1198 *Besteri bere ogitik jatera ematen daki(e)na da abille.*
Itzetazko esaera.
- 1199 *Egie, arma zorrotza.*
Itzetazko esaera. Eta askotan mingotza.
- 1200 *Esana aizeak eramaten du: eskribitua an gelditzen da txurian beltza.*
Itzetazko esaera.
- 1201 *Esaten daki(e)nak, entzuten jakin bear.*
Itzetazko esaera.
- 1202 *Ez balute listoak egiten utsik, ez lukete tontoak egiñen irririk.*
Itzetazko esaera.
- 1203 *Gezurretan atera egie.*
Itzetazko esaera. Orrela, maltzurki jokatu, ateratzen diete egia gaizkille ta lapurrei.
- 1204 *Ixillik dagonaren berririk ez da jakiten.*
Itzetazko esaera. Aren aotik ez beintzat.
- 1205 *Itzak izpidea ekartzen du.*
Itzetazko esaera.
- 1206 *Itza bere kiderrakin.*
Itzetazko esaera. Itz ori egia dela erakusteko bear diren ageriek.
- 1207 *Itzek ekartzen du.*
Itzetazko esaera. "Otsoa aipatu ta otsoa azaldu".
- 1208 *Jende gezurtie, maingia baño lenago arrapatzen da.*
Itzetazko esaera.
- 1209 *Jolas (itz) batek, bestea.*
Itzetazko esaera.
- 1210 *Lengo kontu zarrak berritzea, lan alperra.*
Itzetazko esaera.

- 1211 *Munduko marmariak bein otso egiten duena, otso gelditzen da.*
Itzetazko esaera. Marmariak, jenden esamesak; norbaiti ezarri zaion izen txarra kentzea zail da.
- 1212 *Negarra libre da.*
Itzetazko esaera.
- 1213 *Nik jarri duten (dudan) jolasbidea, beste batek itzaliko du biar.*
Itzetazko esaera. Nik jarri dudan izpidea, esanbidea, esamesak.
- 1214 *Nork beretzat ez du bein ere kulparik.*
Itzetazko esaera. Ez beti.
- 1215 *Ongi eldu zaigune, siñisten dugu aise.*
Itzetazko esaera.
- 1216 *Txakur ixillak ozkarik seguroena.*
Itzetazko esaera. Ixilka esanak kalte aundiena askotan.
- 1217 *Ustea ez da jakitea.*
Itzetazko esaera. Nik uste nuen ola edo ala zela... kontuz esan bear. Oihenartek berdin berdin (475).
- 1218 *Berri ona barra (zabal) dezala Jainkoak gure artean.*
Jainkoazko esaera. Berri ona Ebanjelio santua da: geroztik otoitz egokia ori guzientzat.
- 1219 *Betiko, Jainkoa.*
Jainkoazko esaera. Bai, Bera bakarrik; betidanik izan da, iñoiz asi gabe: egun ta betiko izango da, iñoiz bukatu gabe.
- 1220 *Eskatu ezker, Jainkoak gauza bat ez bada, beste bat ematen du.*
Jainkoazko esaera. Guk nai giñuken ta eskatzen dugun baño gauza ohea; guk baño obeki daki zer zaigun on ta zer gaitz. Gure otoitzak ez dire bein ere alperrik.
- 1221 *Etsaia ez dago lo.*
Jainkoazko esaera. Gauden bada gu ere beti erne, betiko gal ez gaitzan.
- 1222 *Gure Jainkoak urez il (de)zala gure egarrie.*
Jainkoazko esaera. Mozkorreatatik esana.
- 1223 *Jainkoa beti ematen.*
Jainkoazko esaera. Dugun guzia Ark emana dugu.
- 1224 *Jainkoa izan ditteke berankor, baña ez atzenkor.*

Jainkoazko esaera. Aspaldiko esaera; Oihenart-ek ola dakar: "Jainkoa, luzakor bad'ere, ez da ahanzkor" (254).

- 1225 *Jainkoak bedeinka gaitzala! berri onez berri gaitzala!*
Jainkoazko esaera.
- 1226 *Jainkoak denbora debalde ematen du; batzuk sobra dute, ta besteak eskas.*
Jainkoazko esaera.
- 1227 *Jainkoak digula illean eta bizian argia!*
Jainkoazko esaera. Argia datorrenean esaten da.
- 1228 *Jainkoak eman, ta Jainkoak kendu.*
Jainkoazko esaera. Ori esan zuen Job santuak, aberats zelarik, zuen guzia galdu ta billutsik gelditu zenean.
- 1229 *Jainkoak ez daki(e)na (t)oputzen du.*
Jainkoazko esaera. Jainkoak ez-jakiñari baño kontu zorrotzagoa eskatuko dio jakintsuari; onek jakiñaren gaiñean egiten duelako gaizkia, arek berriz jakin-gabez.
- 1230 *Jainkoak makill(ar)ik gabe jotzen badaki.*
Jainkoazko esaera.
- 1231 *Jainkoak nai ez du(e)n tokian ez da gaitzik.*
Jainkoazko esaera.
- 1232 *Jainkoaren baitan gaude denok.*
Jainkoazko esaera.
- 1233 *Lana egin, ta ez eman.*
Lana gerok egin, besteri eman gabe, ori da aundia.
- 1234 *Lanerako gauza denak, zertarako diru pillek?*
- 1235 *Lapur aundiak txikiaren enbidie.*
- 1236 *Lapurre arrapatzeko lapurre on.*
- 1237 *Lapurrek alderdi bat igarra, ongi atera ezkerro; gaizki atera ezkerro, biak.*
- 1238 *Lapur pesta, laburre.*
- 1239 *Lastoa izaten den tokian, izaten da garie.*
- 1240 *La(g)unek nai dittuenak, izaten dittu.*

- 1241 *Lenak len, gero gerokoak.*
Lan bearrenak aurretik, gero besteak.
- 1242 *Lixua egin bear, eta oialik ez.*
Sua egin nai ta sugairik ez.
- 1243 *Maiean katillu aundiak: artzeko onak, emateko txarrak.*
- 1244 *Maindireak austea baño, oñetako austea obe.*
Oatzean gaizki egon baño obe oñetakoak lanean austea.
- 1245 *Makurre, erakutsi gabe ikasten da.*
Zenbatez lenago, erakusten balitzaigu!
- 1246 *Martxoan igesi doaie karriken, eta emiogun arriken.*
- 1247 *Martxoak bi egun eskatu zizkion otsaili (au 28-kin gelditurik); eta oriño bizirik zeuden ardiek bi egun aietan il zituen.*
Ipui ezaguna beste lekutan.
- 1248 *Martxoaren erdin (erdian), gau t'egun berdin.*
Irailaren erdian ere bai.
- 1249 *Martxoan Pazkoa? urte ure falsoa.*
Gero legortea etorriko delako ote?
- 1250 *Martxoan ostotsa, apirillean bei-larru(a)k.*
Beste leku batzuetan: berrogei eguneko ekaitza; onen bildurrez ote?
- 1251 *Merkeak garestia berekin du.*
Gauza merkeak gutxiago irauten agixko.
- 1252 *Mingaña ortzak baño aurrerago ateratzea, arrixku aundia.*
- 1253 *Munduan zer da bizkorrena? Eriotza. -Baño baduk beste bat azkarragoa: Jainkoa.*
- 1254 *Munduko lur guziak aski ez, eta bost oñetan gelditu.*
Il ondoan, lurpean.
- 1255 *Musu-truke ez du iñork irabazten.*
Irabazteko lan egin bear.
- 1256 *Nai badittuzu honrak eta famak, zuzenduko zaituzte aittek eta amak.*
- 1257 *Nai baduk aise izan, ez zakela deus izan.*

Deus ez duenak lapurren bildurrik ez; baña gosearen...?

- 1258** *Nai baduk deus falta gabe, ago deus gabe.*
Deus ez duenari, ez diote deus kenduko.
- 1259** *Naikoa den etxean, eroa're biziko da.*
- 1260** *Naiz bero, kalma balego!*
Lo egin naiko zukenak esana.
- 1261** *Naiz il-zar, naiz ilberri, emaiuzu azia egualdi onari.*
Ereiteko eguraldi onari begiratu bear zaio, ez bakarrik illargi zar ala berriari.
- 1262** *Neguk edertzen du uda.*
Neguko elur ta izotzak udarako mesede.
- 1263** *Neguko eguzki txuriaz ez fia!*
- 1264** *Nolako burua duzun, alaxeko txapela arkituko duzu zure ezkontzan.*
Alaxeko andrea eta etxea noski.
- 1265** *Nondik atera ez dakizun tokian ez sartu; astoak ori badaki.*
- 1266** *Norberak jakiten du bere mandulien berri.*
Nork edo zerk nasten zion bizitza; manduliak, mando-euliak.
- 1267** *Oiala kutxetik saltzen da obekiena.*
Neskatxa etxeak ongiengia ezkontzen. Berdintsu Oihenart-ek (658) eta beste lekutan.
- 1268** *Oial zurian erortzen da mantxarrik aundiena.*
- 1269** *Oilloak ere bere lurtean indar.*
- 1270** *Onez, iñor aspertzen ez.*
- 1271** *Oraingo neskek ispillua berotu arte egoten dire aurrean.*
- 1272** *Oraingo umeakin ez dago eroak bizitzerik.*
Aien lotsagabekeria dela-ta.
- 1273** *Orain ez da aurrik.*
Orain gazteenak ere asko dakite.
- 1274** *"Orkonpon" baño obeki atera zen "zer-gerta".*
Jende zentzudunak bere gauzei ongi begiratzen die, zer-gerta-ere.

- 1275 *Ostirala, aste guziaren kontrarioa.*
Egun ortan Jainkoa ixkutatu zelako omen.
- 1276 *Otsoak ere bere burue du mandataririk oberena.*
Oihenart-ek: "Otsoak ez du kausitzen mandataririk bera iduririk" (387).
- 1277 *Pazkoa goiz balitz, martxoan ez balitz!*
- 1278 *Pazientzie debalde ematen da.*
- 1279 *Pobrearen aberastasune, aurrek.*
- 1280 *Poltsan erla (erreal bat) baño geiago ez zaigu azitzen umea.*
Erreala poltsan bat ere ez azitzen...
- 1281 *Pixke ta pixke, puske.*
Pixka askok egiten dute puska aundia.
- 1282 *Puzkar aundia kaka-gure, izotz aundia elur-gure.*
- 1283 *San Migeletan il-berri, eros zak idi berri: San migeletan il-zar, sal zak idi zar.*
- 1284 *San Simonetan, kapa zuria mendietan.*
San Simon eta Juda urriaren (lastaillaren) 28'an. "San Simon eta Yuda, uda joan ta negua eldu da".
- 1285 *Seme, itz guziak datozen bidean ez itzuli.*
Gaizki esanari ez gaizki erantzun.
- 1286 *Senarra il nai baduzu, uzta-abuztuan aza emaiozu.*
Beste zenbait lekutan ere ola esaten da.
- 1287 *Soilletan, aize otz (musean galtzen ari).*
Mendi soilletan, aizea otz eta zorrotz.
- 1288 *Zure buruari arrika ez eman.*
Osasunaren eta batez ere arimaren kaltetan ez deus egin.
- 1289 *Zuretzat on ez dena, besteentzat ez opa.*
- 1290 *Zuzentasuna nai duena, bere etxetik asi bedi.*
- 1291 *Abenduak egunik ez, jai uts ta gau uts.*
Illabete ortan gau luzeak eta jai asko.

- 1292 *Ardi-larruz otsoa estaltzen da.*
Gure Jaunak esan zuen ori; gaiztoak on-itxura artzen, al duen kaltea egiteko.
- 1293 *Ardoak ez du ezurrik.*
Aise iresten da geiegi ere, edalearen kaltetan.
- 1294 *Askarate-ra bazoaz, joko zaitue mazoaz; Askarate-tik bazatoz, goseak iltzen zatoz.*
Askarate, Araiz-ko erria. Esaera ori asmatu zuenak, ez zion Askarate-ri maitasun aundirik.
- 1295 *Atso zar zar bati esan zioten: "Beste mundutik, zu joateko mandatue etorri da". "Ez naizela etxean esaiozue" erantzun emen zuen.*
- 1296 *Aur-amak, aur lotan bekio.*
Amak aurrari lo arrarazteko beta luzea bear duenetan.
- 1297 *Azaro loizu, urtea garizu.*
- 1298 *"Bagiñu, bagiñakike". Au esan zuena bixigua ezkatak kendu gabe ari zen jaten.*
Bixigua jateko oiturarik ez zuen noski, gutxitan izaten ortarako era; maizago jaten balu, ikasiko luke nola jan: Bagiñu, bagiñakike.
- 1299 *Balantza dauken aldera erortzen da arbola.*
Zein aldetara dagon makurtua eta artara.
- 1300 *Beatza eskeñi, ta besoa artu.*
Eskeñi zaion baño askoz geiago eraman.
- 1301 *Bentan egon, ta bidean trot.*
"Errotan lasa, ta bidean presa".
- 1302 *Bere buruari arrike eman dionak, damuak urretan balitu, aberasturik legoke.*
Ainbestekoa da, bere erruz etorri zaion kalteaz duen damua!
- 1303 *Beretzat asko bear duenak, besterentzat gogo gutxi.*
Beretzat, bere biziotarako, asko bear duenak, besterentzat gogo gutxi eta emateko ere gutxi. Oihenart-ek: "Onegi dena beretako, ezta aski bertzentako" (659).
- 1304 *Besteen ixipuz garbittu nai dittu uli(a)k, eta eltzetik bestek atera ta jaten babak.*
Ez du nekerik den txikiena era artu nai.

- 1305 *Besterik adittu nai ez duenari, berak nai duena bakarrik esan.*
Orixe bai entzungo du gogotik, bestetarako gorra da.
- 1306 *Beste tokietan ere ogie azalik gabe ez da izaten.*
Nonnai lan egin bear.
- 1307 *Beti zerbait ari, ta beti zerbait gabe.*
Zerbait falta.
- 1308 *Bokadu batean ezin ta bitan eta irutan jaten aritzen gera.*
Lanak ere berdin, ez dire denak batean egiten, aldian bat egin bear da.
- 1309 *Egiñek, egitteko gogoa.*
Ongi atera zaigun lanak aurrerako gogoa sortzen.
- 1310 *Egoa, erre kara arte ez gelditzen.*
Euri egin eta erre kak bete arte.
- 1311 *Eltzea, aundie ere, bete ezker o gaiñez aste da.*
Gizonik den gozoena ere, bete egiten eta bere onetik ateratzen, geiegi zirikatzen dutenean.
- 1312 *Enbidiak akabatuko du mundua.*
Elkar ezin-eramanak eta gora igo-naiak ekartzen ditu gizartera nasketarik aundienak.
- 1313 *Eraitteko, abenduko autsek baño azaroko loiek obe.*
- 1314 *Erdi morroi, erdi etxeko.*
- 1315 *Erioak oñek azkar.*
Laster irixten gutxien uste den tokira.
- 1316 *Errazkin-go gaztañe, gorringo baten pare.*
Errazkin, Larraun-go erria.
- 1317 *Errazkindarrak, manso a(g)udoak.*
Patxaran dabiltenak, baño buru onekoak.
- 1318 *Eskuz ekarri ta oñez eraman.*
Norbaiti zerbait, liburuen bat edo, utzi diogunean, gero nekez atzera eskuratzen.
- 1319 *Ez arbi, bai arbi, naiko arbi.*
Gutxi ematen zuen tokian asko biltzen.

- 1320 *Ez da lapurrik estekiñik gabe.*
Estekiña = estalkia.
- 1321 *Fama txarra urrutira joaten da.*
Eta laster ala ere.
- 1322 *Famili onean, guziak begi batetik ikusten dute ta a(g)o batetik artzen dute aza.*
Elkarrekin ongi datozenean bai segurik.
- 1323 *Gizon gorpuzgillea, lan zuri.*
Gorpuzgillea = gorputza guri guri zaintzen duena; olako gizona lanerako uzkur.
- 1324 *Gure bizie, txorie egan bezala, agudo pastuko da.*
- 1325 *Itsasoak bere lekuak bear ditu.*
- 1326 *Jana den tokitik ekarri, eta denetik dela; goseak alderdi txarra.*
- 1327 *Karobi ondoa, beti bero.*
Asarre ondota esaten da.
- 1328 *Labe beroan dagon-dagon, sutu egiten da egurre.*
Arriskuan luze egotean, giña gaiztoa berez sutzen.
- 1329 *Maiatza, urte guziaren ardatza.*
- 1330 *Maiean eder da ogie, alorrean arrea.*
Arrea = goldea.
- 1331 *Martxoan sagu-pixik ez, apirillean ateririk ez: ordun etorriko da maiatza fardel fardel.*
Martxoan legor, apirilla buste; gero maiatzak ekarriko eguraldi ederra, euria ta beroa zein bere garaian.
- 1332 *Non egiñik ez zuenak, eskaratza laiatzen asi omen zen.*
- 1333 *Nork bere lekuak beretzat nai izaten ditu.*
- 1334 *Odolak su(r)ik gabe irakitten du.*
- 1335 *Ogi beltza baño beltzago da ogiaren eza; au da beltza.*
- 1336 *On ainbat txar egitten du egueldiak.*

- 1337 *Oñazez dagona, begi guzien mingarri.*
- 1338 *Ordez-orde egitten dena baño justizi oberik ez da.*
- 1339 *Otsoa artaldean ikustea obe, ardiak Kandeleran abaro baño.*
- 1340 *San Bartolometan, muño txikiak itzal aundia.*
San Bartolome abuztuaren 24'an.
- 1341 *San Juan larraka, urte guziko marraka.*
San Juan larraka esaten da San Juanetan eguraldi txarra dagonean, illun, otz samar, ez euri ta ez ateri, gari asko oraindik burutu gabe, kanpoko guzia oso atzeratua; olako urtetan izango da jenden artean marraka, negarra, estuasunak.
- 1342 *San Markos, artoak ereiñik balegoz!*
Beste lekuetan olatsu.
- 1343 *San Pedrotan katu-pixe ainbat euri baldin bada, gaztañe izango da.*
- 1344 *Sasie maldaren alde.*
Nekazariak sasia alor landutik kendu ta erre egiten du; mendi-maldan berriz sasia trabarik gabe azi ta galanta egiten da; orregatik sasiak malda du maite. Berdin jendetan, gaizkillea gaizkillearen alde.
- 1345 *"Si" ta "no" ta "porque" zar: ire taloa neretzat.*
Zenbait legegizon ta filosofo txarrek amaika aitzeki ta itzul-inguru billatzen dituzte, jabeari berea kentzeko; auzitan dabillan gizonak diru asko txautu eta azkenean bearbada auzia galtzen. Nolanai ere, askotan deus gabe gelditzen. Argatik Oihenart-en zuhur-hitza: "Auzilaria, nekeziaren ezkutaria" (58).
- 1346 *Txerri lentxak, anak aiñe ume aski ditu.*
Lentxa = lenbiziko amaldikoa.
- 1347 *Txintxurrak toki estuak ditu.*
Orregatik txintxurrean egiten diren operazioak kontu aundiz egin bear.
- 1348 *Urte idorra, gaztain-urte.*
- 1349 *Zinzara korapillatuak, legortea datorrela esan nai du.*
Zinzara, zinzare, zizare.
- 1350 *Ziztenik ez dun arros(ar)ik ez da.*
Ziztena = arantza.
- 1351 *Amak umea ezin, eta umeak ama jotzen. Zer da?*
Asmakizuna. Ezkilla.

- 1352 *Auntze il, ta auntze bizirik. Zer da?*
Asmakizuna. Auntza illa, ta bi zirik zintzilika daukatena.
- 1353 *Kendu ta kendu, ta gero aundiago. Zer da?*
Asmakizuna. Zuloa.
- 1354 *Eun dontzella e(g)un guzian elkarren atzetik, eta elkar ez arrapatzen. Zer ote da?*
Asmakizuna. Arilkaria.
- 1355 *Labea bete aizkora txiki. Zer ote dira?*
Asmakizuna. Ortz eta agiñak.
- 1356 *Eun bazen, berreun baziren: denak batean pixa egiten. Zer ote dira?*
Asmakizuna. Ittuxurak.
- 1357 *Utsik baño gutxiago pisatzen beterik. Zer ote da?*
Asmakizuna. Zuloz beterik dagon zerbait.